

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Sagola, SA enpresaren hitzarmen kolektiboa

Ebazpena, Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da 2019-2020 Sagola, SA enpresarentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01002142011993.

AURREKARIAK

2020ko maiatzaren 27an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariak eta ordezkari sozialek, 2020ko martxoaren 16an sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a

Arabako lurralde ordezkaria
CARMEN DE CELIS CUEVAS

Sagola, SA enpresaren hitzarmen kolektiboa 2019. – 2020. urtea

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 16an.

I. kapitulua**1. artikulua.- Eremuak**

Indarrean hasten denetik, eta indarrean dirauen bitartean, lan-harreman hauek arautuko ditu hitzarmen honek: Sagola, SA enpresaren eta enpresa horren kontura Gasteizko lantokian diharduten langileen eta hitzarmenaren indarraldian enpresa horretan alta hartuko dutenen artekoak.

Enpresak ezingo dio inoiz uko egin hitzarmen hau aplikatzeari Langileen Estatutuaren 82.3 artikuluan jasotzen den prozeduraren bidez; beraz, hitzarmenaren indarraldia amaitu baino lehen hitzarmena berriro negoziatzen ahalegindu beharko du, dela beste hitzarmen bat lortzeko, dela berau berrikusteko, Langileen Estatutuaren 86.1 artikulua xedatzen duen moduan.

Zuzendaritza-karguak, bidaia-iristen edo saltzailearen parekoak eta salmenta-departamentuetako merkataritza-teknikariak Hitzarmen honen artikuluen eraginpean egongo dira, ordainsari eta ordutegiei dagokienetan salbu. Azken bi atal horiek interesdunek eta Enpresak adostutako itun indibidualen arabera arautuko dira.

2. artikulua.- Indarrean hastea eta iraupena

Hitzarmen hau 2019ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta 2020ko abenduaren 31ra arteko iraupena izango du, zeinahi dela Lan Agintaritzak erregistratzen duen eguna.

Hitzarmena automatikoki salatzat joko da 2020ko azaroaren 15ean, eta alderdi sinatzaileek ez dute zertan formalki jakinarazi, eta salatzeko hitzarmena indarrean egongo da, oso-osorik, beste hitzarmen bat sinatu arte.

«Berariaz hitzartzen da, Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, hitzarmenak indarrean jarraituko duela amaiera iragarri eta hitzartutako iraupena amaitu ostean, harik eta bi alderdiek hori ordeztuko duen beste bat sinatzen duten arte».

3. artikulua.- Irenstea eta konpentsazioa

Hitzarmenean itundutako baldintza ekonomikoek osotasun edo batasun zatietan bat eratzen dute, eta, aplikazio praktikoari dagokionez, oro har hartuko dira kontuan urteko zenbatekoan.

Hitzarmenaren iraunaldia hasten denean enpresan indarrean dauden kontzeptu ekonomiko guztiak –izena, izaera edo jatorria zeinahi dutela– xurgatu eta konpentsatuko ditu hitzarmen honek bere kontzeptuekin.

Hitzarmenak dirauen bitartean igoerarik gertatuz gero kontzeptu ekonomikoetan edo beste edozeinetan –nahitaez aplikatu beharreko legezko xedapenen ondorioz gertatu ere–, kasu honetan bakarrik eragingo zaio hitzarmenari: igoerek orokorki hartuta eta urteko zenbatekoan gainditzen dituztenean hemen adostutako kontzeptuak.

Horrez gain, hitzarmen honek indarririk gabe uzten du enpresaren eta langileen artean aurretik ezarritako itun edo akordio guztiak.

4. artikulua.- Berme pertsonalak

Osotara hartutako baldintza pertsonalen batzuek gaindituz gero hitzarmen honetan itundutakoa, errespetatu egingo dira; horrela, hitzarmenaren indarraldiaren aurretik hemen ezarritakoa baino ordainsari handiagoa jasotzen zuten langileei ez zaie guztizko lansaria gutxituko hitzarmena indarrean jartzearen ondorioz.

Hitzarmen honetan aurreikusi gabeko guztiari dagokionez, Arabako metal arloko eraginkortasun mugatuko hitzarmena aplikatuko da (2015-2017 aldirakoa edo horren ordezkia, halakorik bada), eta errespetatu egingo dira hitzarmen honetan itundutakoa gainditzen duten osotara hartutako baldintza pertsonalak.

5. artikulua.- Osotasunarekiko lotura

Hitzarmen honetan itundutako baldintzak osotasun organiko eta zatiezina eratzen dute, eta ezin dira zati batean bakarrik aplikatu, hargatik eragotzi gabe hitzarmenaren 3. eta 4. artikuluek ezarritakoa.

6. artikulua.- Ordezko arauak

Hitzarmen honetan aurreikusi ez den orotarako, une bakoitzean indarrean dauden legezko xedapenei begiratuko zaie, non eta hitzarmenaren edukari kontra egiten ez dioten.

Era berean, hitzarmen honez gaindiko itun-arau batek erregulatzen ez duen bitartean, Metal alorreko lan-ordenantza aplikatzeari eutsiko zaio diziplina-araubidearen eremuan.

II. kapitulua**7. artikulua. Langilearen aurreabisua/ probaldia**

Enpresako lana haien borondatez utzi nahi duten langileek nahitaez jakinarazi beharko diote enpresari, eta honako aurreabisu-epe hauek beteko dituzte:

- 1., 2., 3. eta 4. lanbide-taldeak = 15 egun.
- Gainerako lanbide-taldeak = 30 egun.

Langileak behar bezalako aurrerapenaz abisatzen ez badu, enpresak langilearen likidaziotik diru-kopuru bat kentzeko eskubidea izango du; hain zuzen ere, langilearen eguneko soldataren zenbatekoa kendu ahal izango dio, abisua ematen atzeratzen den egun bakoitzeko.

Langileak kontratatu aurretik, beharrezkotzat jotako froga psikotekniko, mediko eta profesionalak egingo zaizkie langileei.

Probaldiaren gehieneko iraupena: sei hilabete tituludun teknikarientzat, eta bi hilabete gainerako langileentzat.

Probaldiak dirauen bitartean, enpresak zein langileak izango dute lan-harremanari amaiera ematea, eta alderdietako batek ere ez du kalte-ordainerako eskubiderik izango horregatik, salbu eta sorrarazitako ordainketak jasotzeari dagokiona.

Probaldia iraganez gero, automatikoki formalizatuta geratuko da onarpena, eta probaldia ondorio guztietarako kontatuko zaio langileari.

Langileren batek barne-sustapenaren bitartez lortzen badu lanposturik, aurreko paragrafoetan ezarritako probaldi bera izango du. Langileak probaldia gainditzen ez badu, jatorrizko lanpostuak zer lanbide-kategoria duen, bada kategoria bereko lanpostu batera itzuliko da.

III. kapitulua**8. artikulua.- Lanaldia**

Hitzarmen honetan aurreikusitako baldintza ekonomikoak urteko 1.700 orduko benetako lanaldiari dagozkio.

Lanaldi arrunteko langileek zenbat presentzia-egun, hainbat bete beharko dituzte txandaka diharduten langileek, eta ez dituzte eguneko 8 ordu gaindituko, ez eta aurreko paragrafoan adierazitako urteko orduen kopurua ere.

Nolanahi ere, merkatuaren eskakizunei hobeto erantzuteko, bezeroen arretarako departamentuko bi langilez osatutako lantalde batek lanaldi zatituan jardungo du, ohiko lanaldirako ezarritako eguneko ordu kopurua eginez.

Lanaldi desberdinak hasteko eta amaitzeko orduen zehaztapen praktikoa urteko lan-egutegian jasoko da, eta egutegi hori urte bakoitzaren urtarrean finkatuko da, berdin dio hitzarmen berria negoziatzea egokitu ala ez. Hitzarmen berririk sinatuz gero, behin betiko egutegia ezarriko da.

Dena den, lantalde bat eratuko da, kide hauekin: bezeroen arretarako departamentuko gehienez 2 pertsona, bidalketa-saileko gehienez bi pertsona eta muntaketako gehienez bi pertsona. Lantalde horrek egutegi bereziak izango ditu, eta, egutegi horietan, beste langileei ez bezala jasoko zaizkie oporrak eta abenduko jaiegunak lantalde berezikoei, aukera izan dezaten bezeroei arreta eta zerbitzua emateko eta urte-amaierako inbentarioak egiteko, beharrezkoa bada. Hala ere, gainerako langileentzat lanegun ez direnetan lan egin behar izanez gero, 8:00etatik 14:00etara bitartekoa izango da lan-ordutegia, guardia-zerbitzu batez ari baikara, eta lanegun osotzat hartuko da ordea hartzea tokatzen denerako.

Lanaldi arruntaren barruan, enpresak aukeran izango du urteko ordu-kopuru bat baliatzea, langile bakoitzeko: 50 ordu, gehienez ere. Enpresak eskatutakoan sartuko dira ordu horiek, hauek direla eta: larrialdiei edo puntako produkzio-aldiei aurre egitea, entregatzeko epe zorrotz-zorrotzak, betetzen ez badira eskaria galtzea ekar lezaketenak, eta abar. Ordu horietarako eskaria derrigor bete beharrezkoa izango bada, nahikoa izango da eta beharrezko –non eta eragindakoen artean bestelako akordiorik ez den– ondorengo baldintzak betetzea:

1) Eraginpekoei eta enpresa batzordeari 5 egungo lehenago abisatzea, abisua eragin duten arrazioen berri idatziz emanez.

2) Enpresaren egutegiko lanegunetan baino ez dira sartuko ordu horiek.

3) Prestasun-orduak ezin izango dira diruz konpentsatu; aitzitik, denbora librearekin konpentsatuko dira, hurrengo sei hilabeteetan, lanaldi osoen arabera zein eguneko lanaldia murriztuz, alderdiek aldeztu aurretik adostutakoaren arabera.

9. artikulua.- Lanera berandu iristea eta lanera ez bertaratzea

Lanera berandu iristeagatik eta lanera ez joateagatik denbora galduz gero, indarreko lan-arauegiak ezarritako zehapenik aplikatzen ez bada, berreskuratu egingo da, edo, bestela, ordu-kostuaren arabera deskontatu. Hau hartuko da ordu-kostutzat: oinarritzko soldataren, antzinasunaren, lansari-osagarriaren eta osagarri pertsonalaren kontzeptuengatik orduko ordainketa, zati urteko orduak.

10. artikulua.- Oporrak

Hitzarmen honen aplikazio-eremura bildutako langileek egutegiko 30 eguneko oporraldi jarraitua baliatuko dute urtean, bestelako itun indibidualik egin ezean. Oporren ordainketari dagokionez, erantsitako soldata-tauletan lanbide-talde eta kategoria bakoitzari esleitutako diru-kopuruen arabera izango da, eta, hala balegokio, antzinasun-plusa, soldata-osagarria eta osagarri pertsonala gehituko zaio, baita pizgarri bat ere: azken hiru hilabeteetako batez besteko errendimendua bider hilabeteako batez besteko ordu kopurua eginez gero ateratzen dena. Langile sartu berriak noiz enpresaratu diren, egun horretatik aurrera sorrarazitako oporrei dagokion zati proportzionalerako eskubidea izango dute.

Enpresaren opor-egutegian ezarritako oporraldiak bat egiten duenean haurdunalditik, erditzetik edo edoskitze naturaletik eratorritako aldi baterako ezintasunarekin, edo Langileen Estatutuaren Lege honen 48.4 eta 48.bis artikuluetan aurreikusitako lan-kontratua bertan behera utziko den sasoiarekin, eskubidea dago oporraldiak aldi baterako ezintasun-sasoitik edo legokiokeen xedapena aplikatuz eratorritako sasoiak kanpo hartzeko, bertan behera uzteko sasoi amaituta, oporrei dagokien urte naturala amaitu bada ere.

Oporraldiak bat egiten badu aurreko paragrafoan aurreikusitako gorabeherak eragindakoa aldi baterako ezintasun-sasoiarekin eta langileak ezin baditu oporrak gozatu, zati batean edo osorik, dagokion urte naturalean, langileak eskubidea izango du oporrak hartzeko, bere ezintasuna amaitu ondoren eta betiere hamazortzi hilabete baino gehiago igaro ez badira gorabeherak gertatu direnetik.

11. artikulua.- Lizentziak eta baimenak

Langileak, behar besteko aurrerapenarekin ohartarazi ondoren, soldata-taulen arabera ordaindutako baimenatarako eskubidea izango du, betiere honako arrazoi hauek direla eta:

1) Gurasoen, aita-amaginarreben, aitona-amonen, seme-alaben, biloben edo anai-arreben heriotzagatik: egutegiko hiru egun; aldi hori egutegiko bi egunez luza daiteke, langileak probintziatik kanpora bidaiatu behar badu.

2) Heriotza, ezkontidearena edo egitezko bikotekidearena, betiere bat-egitea ofizialki erregistratuta eta dokumentatuta badago: egutegiko bost egun, eta ordaindu gabeko baimeneko hiru egun gehiago eskatu ahal izango dira.

3) Koinatu-koinataren edo suhi-errainaren heriotzagatik: egutegiko bi egun; aldi hori egutegiko bi egunez luza daiteke, langileak probintziatik kanpora bidaiatu behar badu.

4) Istripua edo gaixotasun larria, ospitaleratzea edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ospitaleratzerik gabeko ebakuntza, odolkidetasuneko edo kidetasuneko bigarren mailarainoko ahaideena: egutegiko bi egun; aldi hori egutegiko bi egunez luza daiteke, langileak probintziatik kanpora bidaiatu behar badu. Xede horri begira, gaixotasuna larritzat hartuko da dagokion medikuak halakotzat jotzen duena. Ziurtagiri hori izan ezean, Gizarte Segurantzako osasun-zerbitzuek horretarako egiten dutena aurkeztuko da. Baimena ordainduko bada, ezinbestekoa izango da ziurtagiria aurkeztea.

Gaixotasun larriak gehiago iraunez gero, langileak beste lizentzia bat hartzeko eskubidea izango du, ordaindu gabea eta iraupen berekoa, lehenengo lizentzia amaitu eta hogeita hamar egun igaro ondoren. Kasu horretan, ez da baimena luzatzeko aukerarik izango.

5) Urritu psiko-fisikoen seme-alaben kontsultetara joatea: egutegiko bi egun, betiere probintziatik kanpora bidaiatu behar badu.

6) Emaztea erditzea: bi lanegun. Ebakuntza egin behar izanez gero, baimena egutegiko hiru egunez luzatzen da. Baimen horren orde, amatasun/aitatasun baimena emango da, langileak eskatzen badu.

7) Odolkidetasuneko zein ezkontza-ahaidetasuneko seme-alaben, gurasoen edo anai-arreben ezkontza: egutegiko egun bat; aldi hori egutegiko bi egunez luza daiteke, langileak probintziatik kanpora bidaiatu behar badu.

8) Langilearen ezkontzagatik: egutegiko hamazortzi egun. Produkzio- eta antolamendu-inguruabarrek uzten badute, baimen hori egutegiko 10 egun gehiagorik luza ahal izango da, baina egun horiek ez dira ordainduko. Ezkontza larunbat, igande edo jaiegunean egiten bada, zenbaketa lehen lan-egunetik abiatuko da.

9) Ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik: egutegiko egun bat.

10) Mediku-kontsulta partikularra: 16 ordu urtean. Urteko 16 orduko muga horren barruan sartu ahal izango dira ezkontideari, seme-alabei eta gurasoei medikuaren kontsultetara laguntzearen ondoriozko absentziak, orobat proba medikoak prestatzeko behar diren orduak (adibidez, kolonoskopiak), lan-orduekin bat badatoz, betiere.

Behar bezala justifikatu beharko dira horiek guztiak.

Urte bakoitzaren amaieran, enpresa batzordearekin batera aztertuko da eskubide hori gehiegi erabili den ala ez. Gehiegi erabili bada, idatzi-zati hau ezabatzeko aukera aztertu liteke.

Artikulu honen 4) eta 6) idatzi-zatietan bildutako baimenak ospitaleratzeak dirauen bitartean baliatu ahal izango dira, eta lanaldi-erditan banatzeko aukera izango da, langileak horrelakorik eskatzen badu. Baimena probintziatik kanpora bidaiatu beharraren eraginez luzatzen bada, aldiz, aukera hori ezin izango da baliatu.

Artikulu hau izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie, betiere bat-egitea erregistratua eta dokumentatua badago, eta izatezko bikotekidea ezkontidearen parekoa izango da ezkontzako ahaidetazuna zehazteko, betiere interesdunak horretarako eskaera-idaztia egiten badu. Horrekin batera, egoera hori justifikatzeko dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko du, eta horrek alde aurreko ezkontide edo izatezko bikotekideko figurei uko egitea ekarriko du, hala badagokio.

12. artikulua.- Orduak errekuaratzea edo baliatzea

Berandutze, baimen edo egindako lanengatik baliatu gabeko orduak dituen langileak arduradunarekin adostu beharko ditu bere egoera erregularizatzeko egunak, ordu horiek egin ondoko sei hilabeteen barruan, alderdiek alde aurretik bestelako akordioak hartu ezean.

13. artikulua.- Aparteko orduak

Ezin da aparteko ordurik egin: laneko arau orokorra da hori.

Lan egindako aparteko orduak konpentsatzeko, denbora libre hartuko da (ordu bat eta 45 minutu aparteko ordu bakoitzeko), edo ordu horiek ordainduko dira, ezinbesteko orduak badira, erantsitako tauletan ezarritako zenbatekoan. Langileak hautatuko du konpentsazio modua.

Hilean behin, enpresa batzordeari informazioa emango zaio ordaindutako aparteko orduei buruz.

14. artikulua.- Enplegua sustatzeko neurriak

Enpresaren eta langileen ordezkariak konpromisoa hartu dute enplegu-aniztasuneko egoerak deuseztatzeko, ahal duten neurrian.

15. artikulua.- Erretiroa / txanda kontratua

Erretiroari dagokionez, indarreko legeria aplikatuko da; hala ere, irekita dago enpresaren eta langileen arteko ituna egiteko aukera.

Araudi aplikagarriak lege baimentzen badu, Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek txanda eta ordezte kontratuei eustea adostu dute, betiere enpresak eta eraginpeko langileek esanbidezko adostasuna lortzen badute. Horretarako, indarreko araudiak ezarritako baldintzetan sistema horrekin bat egin nahi duten langileen eskaera guztiak aztertuko dira. Nolanahi ere, langile batek gutxienez hamabi urte eraman beharko ditu enpresan modalitate hori hautatu ahal izateko, baina enpresak antzintasun txikiagoko kasuetan ere aplikatzeko aukera izango du.

Modalitate hori aplikatzeko eskaerak Gizarte Harremanen Departamentuan aurkeztuko dira, kontratuaren hasiera-urtearen aurreko urteko irailaren batetik urriaren azkenera arte doan epean. Enpresan antzintasun handiena duten bost pertsonen dagozkien eskabideak eskutako adina bete eta lehen egun baliodunean aplikatuko dira. Salbuespenezko kasuetan, eta enpresa-batzordeari arrazoiak azaldu ondoren, gehienez ere 20 lanegun atzeratu ahal izango da aplikazioa, eta gainerakoei dagokienez, enpresak erabakiko du baimena eman edo ez, alde aurretik enpresa-batzordeari entzunda.

Ordezkatuak ohiko erretiroa hartu arteko ordu osagarriak modu jarraituan egingo dira kontratua aplikatu ondoren.

Ordeztuaren lanaldi partzialeko kontratuari dagozkion soldak eguneratu egingo dira indarreko hitzarmenean adostutakoaren arabera.

IV. kapitula

16. artikulua.- Ordainsarien eta kalte-ordainen kontzeptuak

Ordainsarien eta kalte-ordainen kontzeptu hauek aurkezten dira:

a) Ordainsarien kontzeptuak:

- Oinarrizko solda.
- Antzintasuna.
- Solda-osagarria.

- Osagarri pertsonala.
- Pizgarriak.
- Uztaileko eta abenduko aparteko haborokinak.
- Txandakotasun-plusa/gau-plusa.
- Aparteko orduak.

b) Kalte-ordainen kontzeptuak:

- Soldataz kanpoko plusa.
- Dietak.

17. artikulua.- Kontraprestazioak

Hitzarmen honek eragindako produktoreek euren lanetan eduki beharreko errendimendua hartzen da hitzarmen honetan adostutako ordainsarien oinarritzat, errendimenduaren kontra-prestazio baitira ordainsariok.

Beren errendimendu pertsonalak kontrolatzeko sistema objektiboa ezarria duten langileei (lantegiko taldeak) "arrunt" gisa zehaztutako jarduerari dagokion errendimendua eskatuko zaie (edo 100eko jarduera 100/133 eskalan). Gainerako langileentzat (bulegoko taldeak) aurrez zehaztutako jarduera "arrunta"ri dagokion ordainsaria hartuko da aintzat, eta zenbateko horri ehuneko 33 gehituko zaio, 2. eta 3. taldeei izan ezik (azken horiei ehuneko 8 eta ehuneko 24 gehituko zaie, hurrenez hurren).

18. artikulua.- Oinarrizko soldata

Hitzarmen honen aplikazio-eremuan bildutako langileen oinarrizko soldata erantsitako soldata-tauletan zehaztu da, lanbide-taldearen eta kategoriaren arabera. Kasu bakoitzean, lanpostuen balorazioa erabiliz zehaztuko da lanbide-taldea.

Hitzarmenaren soldata-tauletan hauek jasoko dira oinarrizko soldata, soldata osagarria eta soldataz kanpoko plusa kontzeptuetan: aldeztu aurretik ezarritako lanbide-taldeetarako zehaztutako zenbatekoak.

19. artikulua.- Antzintasun-plusa

Kontzeptu horrengatik jaso beharreko zenbatekoak bosturtekoen arabera ordainduko dira. Bosturteko bakoitzak langilearen lanbide-taldearen eta kategoriaren ehuneko 5 joko du, eta langile bakoitzak gehienez sei bosturteko jasoko ditu.

20. artikulua.- Soldata-osagarria

Erantsitako tauletan, lanbide-talde eta kategoria bakoitzerako zehazten dira osagarri hori eta haren zenbatekoak.

21. artikulua.- Osagarri pertsonala

Lanpostuen balorazioaren aurreko egoerak direla-eta, enplegaturen bati gertatuz gero gehiago kobratzea erantsitako soldata-tauletan bere lanposturako edo finkatutako lanposturako zehaztutako zenbatekoak baino, osagarri pertsonal gisa jasoko du gaindikina.

22. artikulua.- Pizgarriak

Enpresa honetan aplikatutako pizgarri-sistemaren (PIC) eraginpeko langileen ordainsariak –bestela, pizgarri hori zenbatu daiteke, horren aipamena eginez– sistema horretan ezarritako errendimendu- eta aurrezki-tauletan adierazi dira. Eranskinean ageri dira, eta eguneratu dira adostutako lanorduen murriztea eta ezarritako soldata-igoera konpentsatzeko.

Lanerako denbora jakin bat ez duten zereginak egiten badira, "etete-gako"ei buruzko indarreko araudian adierazitakoaren arabera ordainduko da pizgarria.

23. artikulua.- Aparteko haborokinak

Langileek aparteko haborokinak jasoko dituzte. Haborokin bakoitzak 30 soldata-egun joko du, eta honako kontzeptu hauek bilduko ditu: oinarritzko soldata, antzinasuna, soldata-osagarria, osagarri pertsonala eta pizgarriak, hala badagokio.

Haborokin horiek dagozkien seihilekoetan hainbanatuta ordainduko dira, eta nominaren agiriari berariazko kontzeptu baten pean agertuko dira, non aurreko kontzeptuak jasoko baitira, pizgarriena izan ezik, aipatutako pizgarrien hileko ordainsaria seiren batean igoz gauzatuko baita.

Gaixotasunagatiko, amatasunagatiko edo istripuagatiko bajaldiak lan egindako denboratzat hartuko dira haborokin horiek jasotzekoari begira.

Seihileko batean lanean hasiko diren edo lana utziko duten langileek lan egindako denboraren zati proportzionala jasoko dute.

24. artikulua.- Txandakotasun-plusa eta gau-plusa

Lanaldi osoko txandetan diharduten langileek, duten ordutegiaren baldintza bereziak aintzat hartuta, plus bat jasoko dute txandaka lan egiten duten egun bakoitzeko. Eranskinean adierazten da plusaren zenbatekoa.

Halaber, lanaldi osoko gaueko txandan jarduten duten langileek plus bat jasoko dute, beren lanbide-taldee eta kategoriei esleitutako oinarritzko soldataren ehuneko 40koa, hain zuzen ere.

25. artikulua.- Soldataz kanpoko plusa

Soldataz kanpoko plusak kalte-ordainaren kontzeptu hauek baino ez ditu hartzen: hiri-garraio plusa eta distantziako plusa, langileak joan-etorria egin behar badu bere bizilekutik ohiko lantokira.

Plus horren zenbatekoa, lan egindako ordu bakoitzekoa, erantsitako soldata-tauletan ageri da. Ez da halako plusik jasoko bajaren, oporren eta aparteko ordainsarien kasuan.

26. artikulua.- Dietak

Enpresaren beharengatik eta enpresak aginduta Gasteiztik kanpora bidaiatu behar duten langileek dietak jasotzeko eskubidea izango dute, honako zenbateko hauen arabera:

Gosaria = 3,09 euro Bazkaria = 17,75 euro Afaria = 12,49 euro

Hitzarmen hau sinatzen den egunetik aurrera aplikatuko dira zenbateko horiek.

27. artikulua.- Ibilgailu partikularra erabiltzea

Borondatezkoa izango da ibilgailu partikularra Enpresarentzako zerbitzuetarako erabiltzea, non eta kontrako itun indibidualik ez den.

Hitzarmen hau sinatzen den unetik, langileak 0,33 euro jasoko du km bakoitzeko, eta isunak eta zigorrak interesdunaren kontura izango dira.

28. artikulua.- Gizarte-betebeharrak

Gizarte-betebeharrak, hala nola Gizarte Segurantzaren kuotak, PFEZaren atxikipean edo langileak ordaindu beharreko beste edozein zerga, langilearen kontura izango dira, gai horri buruzko indarreko araudiaren arabera.

29. artikulua.- Ordaintzeko modua

Hurrengo hilabeteko lehen lanegunean ordainduko du Enpresak hileko soldata.

Ordainketa egiteko, transferentzia bat bidaliko da pertsona bakoitzaren kontu korrontera.

Soldata ordaindu izanaren agiriak soldata osatzen duten kontzeptu guztiak argi jasotzen dituela jota, bi alderdiek onartzen dute egiaztagiri hori.

30. artikulua.- Aurrerakinak

Egindako lanaren konturako aurrerakinak jasotzeko aukera izango da; gehienez, hileko soldataren ehuneko 60 aurreratuko da. Interesdunak edo haren legezko ordezkariak eskatuko diote aurrerakina, idatziz eskatu ere, Giza Baliabideen Departamentuari, zeinak hil horren 20tik 22ra bitartean egingo baitu transferentzia.

Aurrerakinak jasotzea ez da ohiko ordainketa-modutzat hartuko.

31. artikulua.- Soldata-igoera

2019. eta 2020. urteetan jasoko diren ordainsariak erantsitako soldata-tauletan jasotakoak izango dira lanbide-talde eta kategoria bakoitzarentzat, 2019rako ehuneko 1,2ko igoera islatzen dute, eta 2020rako ehuneko 1,5ekoa, aurreko urtean indarrean zeudenekiko.

V. kapitula**32. artikulua.- Lanbide-prestakuntza**

Zuzendaritzak eta Enpresa Batzordeak adostuta, prestakuntza-planak ezarri ahalko dira, Lan Administrazioako agintariak ezarritako jarraibideen ildotik, langileen lanbide-heziketa hobetzeari begira.

Eusko Jaurlaritzak edo antzeko erakunderen batek aitortutako zentro ofizialek antolatutako ikastaroetan inskribatzen diren langileek, hortaz, azterketetara joateko behar dituzten baimenak izango dituzte, ordaindu gabeak (Enpresaren eta Batzordearen artean adostuak salbu), urtean hamar egunetan gehienez ere.

33. artikulua.- Urritu fisiko eta psikikoak

Lan-istripuaren edo lanbide-gaixotasunaren ondorioz langile baten gaitasun psikofisikoak urritzen badira, langile horrek bere egoera berrira egokitutako lanpostu hutsa betetzeko lehen-tasuna izango du, lanpostu horretan aritzeko gaitasuna baduela egiaztatu ondoren. Ezintasun iraunkor partzialaren deklarazioak ez du ezintasunaren eraginpeko langilearen lanbide-kategoria jaistea ekarriko.

34. artikulua.- Ekonomatua eta beste batzuk

Egungo ekonomatu-zerbitzuek bere horretan jarraituko dute. Itundutako ekonomatua edozein arrazoi dela medio desagertzen den kasurako, enpresak hitzematzen du antzeko beste erakunde batean parte hartuko duela, ordura arte jarritako aportazio edo ekarpen berberarekin.

Abenduaren bigarren astean, 82,17 euroko erosketa-txartela emango zaie data horretan enpresan alta emanda dauden langileei.

35. artikulua.- Laneko arropak

Enpresak sartze beretik hornituko ditu langileak euren zereginetarako behar dituzten laneko jantziz. Zuzeneko produkzioko langileek bi jantzi jasoko dituzte urtean, negukoa eta udakoa, eta jantzi horiek orain arte bezala banatuko dira.

Lanposturako segurtasun-betaurrekoak ezinbesteko dituzten langileei dagokienez, betaurreko graduatuak behar badituzte, enpresak eskuratuko dizkie betaurreko homologatu gainjarrirak, norberaren betaurrekoak babesteko. Alabaina, interesdunak segurtasun-betaurreko graduatuak erostea nahiago badu, enpresak betaurrekoen kostuaren ehuneko 100 ordainduko dio; betiere, enpresak erabakitako tokian erosten badu enpresak erabakitako betaurreko-modeloa.

Egoki erabili behar dira jasotako jantziak.

36. artikulua.- Aldi baterako ezintasunagatiko prestazio osagarria

Lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako ezintasun iragankorrik gertatuz gero, ehuneko 100eraino osatuko ditu enpresak aurreko hilabeteko lanaldi arruntan egiaztatutako ordainsari-kontzeptuak, bajaren egunetik bertatik bajaren 130. egunera, hori barne hartuta.

Lanaz kanpoko gaixotasunak edo istripuak eragindako ezintasun iragankorrik gertatuz gero, lehenengo hiru egunetara hedatuko du enpresak gainerako egunei dagokien estaldura, baina urteko lehenengo baja bada bakarrik. Era berean, langilea egun bat baino gehiagorako osasun-zentro batean ospitaleratu behar badute, edo ebakuntza kirurgikoa egiten badiote eta medikuak etxean atseden hartzeko agintzen badio, ehuneko 100eraino osatuko ditu enpresak (ikusi 16. artikulua) aurreko hilabeteko lanaldi arruntean egiaztatutako ordainsari-kontzeptuak, bajaren egunetik bertatik bajaren 120. egunera, hori barne hartuta.

Langileak jaso beharreko zenbateko likidoak ezin izango dira inoiz izan enpresan bere jardura arruntean ibiliko balitz irabaziko lituzkeenak baino handiagok.

37. artikulua.- Azterketa medikoak

Langileen osasunaren zaintza kontratatutako kanpoko zerbitzuaren bitartez bideratuko da.

38. artikulua.- Lan-istripuetarako poliza kolektiboa

Enpresak aseguru-poliza bat sinatuko du enplegatuen lan-istripuak –eskumeneko erakundeak halakotzat jotakoak– estaltzeko. Ezaugarri hauek izango ditu polizak:

1) Lan-istripuaren ondoriozko heriotzaren kasuko estaldura: hogeita hiru mila ehun eta hamabi euro.

2) Lan-istripuak eragindako ezintasun iraunkor osoaren, absolutuaren edo baliaezintasun handiaren kasuetarako estaldura: berrogei mila eta hirurogei euro.

Enpresak gehienez hamabost eguneko epea izango du, hitzarmen hau sinatuko den egunetik, poliza adostutako kapitalen arabera eguneratzeko.

39. artikulua.- Euskararen sustapena

Ahal dela, iragarki-taulan argitaratzen diren ohar eta abisu guztiak gaztelaniaz eta euskaraz idatziko dira.

Enpresak eskumeneko erakunderen baten eskutik euskara-ikastaroei buruzko informazioa jasotzen badu, iragarki-taulan erakutsiko du, eta langile interesdunei lagunduko die izen-emaiteko beharrezko dokumentazioa betetzerakoan.

40. artikulua.- Mugigarritasuna, maila-igoerak eta kaleratzeak

Enpresaren eremuko mugigarritasun funtzionalari dagokionez, indarreko araudian ezarritakoari begiratuko zaio.

Lanpostu hutsik gertatuz gero, hura betetzeak lanbide-taldez igotzea badakar, beharrezko azterketa edo gaitasun-probak egingo dira, pertsona egokiena zein den zehazte aldera.

Langileen Estatutuaren 52 C) artikuluaaren aplikazioak langile bati baino gehiagori eragiten badio egun berean, Enpresak, lan-kontratua suntsiarazi aurretik, hiru laneguneko kontsultaldia izango du Enpresa Batzordeko ordezkari batzuekin –sindikatu bakoitzeko ordezkari bana–, eta egoera hori zerk eragin duen eta egoera hori nola saihestu eta eraginpeko langileentzako ondorioak nola arin daitezkeen jakinaraziko die ordezkari horiei, betiere enpresa-proiektuaren jarraitutasuna eta bideragarritasuna ahalbidetearren.

Kontsultaldi horretan, bi alderdiek fede onez negoziatuko dute akordioa lortzearen, baina akordiorik lortzen ez bada, horrek ez du baldintzatuko enpresa-erabakia gauzatzea.

VI. kapitula

41. artikulua.- Langileen batzarra

Enpresa batzordeko gehiengoak edo gutxienez plantillaren ehuneko hogeik deitu ahal izango ditu batzarrak. Plantillaren ordezkariak batzarra egiteko asmoa jakinaraziko dio enpresari hogeita lau orduko aurrerapenaz, gutxienez, eta hauek argituko dizkio: aztertu beharreko gai-zerrenda, batzarra egiteko arrazoiak eta aurreikusitako iraupen-denbora.

Kasu guztietan, enpresa batzordea egongo da batzarraren buruan, eta bere gain hartuko du batzarra ongi garatzeko ardura.

Batzarrean emandako orduak ez dira lanordutzat hartuko.

42. artikulua.- Delegatu eta atal sindikalak, enpresa-batzordearen eginkizunak eta eskuduntzak

Organo horien eskuduntzak Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Legean eta martxoaren 10eko 8/1980 Legean ezarritakoak izango dira, baita gaia arautzen duten gainerrako arauetan ezarritakoak ere.

43. artikulua.- Segurtasun- eta osasun-batzordea

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean ezarritakoa beteko da.

44. artikulua.- Eszedentziak: kargu sindikalagatikoak, aitaltasun-amatasunagatikoak eta borondatezkoak

Indarreko xedapenetan gai horri buruz araututakoa beteko da.

45. artikulua.- Batzorde paritariora

Alderdien artean zalantza edo desadostasunik sortuz gero hitzarmen honen interpretazioa dela eta, batzorde misto baten erabakiaren mende jarriko da, eta langileen ordezkariak eta enpresen ordezkariak osatuko dute batzorde hori. Batzorde hori arduratuko da hitzarmenean adostutakoa interpretatzeaz eta betearazteaz.

46. artikulua.- Desadostasunak ebazteko prozedurak

Bi aldeek zehazki adostu dute desadostasunik baldin badago, edonola ere, PRECO lanbi-de-akordioaren adiskidetzeari eta bitartekaritza aplikatuko dela. Arbitraje-prozedura bi aldeek espresuki hala erabakitzen badute aplikatuko da, ez bestela.

Sagola, SA

2. eranskina

Soldata- taula

2019

Lanbide taldea

Bulegoak	Eguneko euro gordinak		Gord. o.	Zenbateko gordina urtean			
	Oin. sold.	Sold. os.	Sol. a. pl.	Oin. sold.	Sold. os.	Sol. a. pl.	Guztira
1 lanbide-taldea							
Laguntz. ad./teknikaria	29,34	13,16	0,63	12.322,80	5.528,47	1.071,00	18.922,27
2 lanbide-taldea							
Laguntz. ad./teknikaria	29,34	20,28	0,63	12.322,80	8.517,23	1.071,00	21.911,03
3 lanbide-taldea							
Laguntz. ad./teknikaria	29,34	27,40	0,63	12.322,80	11.505,99	1.071,00	24.899,79
Antol. tek., 2. mailakoa	33,02	23,72	0,63	13.868,40	9.960,39	1.071,00	24.899,79
Ofizial admin., 2. mailakoa	31,78	24,96	0,63	13.347,60	10.481,19	1.071,00	24.899,79
4 lanbide-taldea							
Laguntz. ad./teknikaria	28,99	34,86	0,63	12.175,80	14.641,75	1.071,00	27.888,55
Antol. tek., 2. mailakoa	32,63	31,22	0,63	13.704,60	13.112,95	1.071,00	27.888,55
Ofizial admin., 2. mailakoa	31,40	32,45	0,63	13.188,00	13.629,55	1.071,00	27.888,55
Delineatzailea, 2. mailakoa	29,34	34,51	0,63	12.322,80	14.494,75	1.071,00	27.888,55
Zuzend.-gidaria	29,34	34,51	0,63	12.322,80	14.494,75	1.071,00	27.888,55
5 lanbide-taldea							
Laguntz. ad./teknikaria	29,34	41,63	0,63	12.322,80	17.483,52	1.071,00	30.877,32
Antol. tek., 2. mailakoa	33,02	37,95	0,63	13.868,40	15.937,92	1.071,00	30.877,32
Antol. tek., 1. mailakoa	33,02	37,95	0,63	13.868,40	15.937,92	1.071,00	30.877,32
Ofizial admin., 2. mailakoa	31,78	39,19	0,63	13.347,60	16.458,72	1.071,00	30.877,32
6 lanbide-taldea							
Ofizial admin., 2. mailakoa	31,78	46,30	0,63	13.347,60	19.447,47	1.071,00	33.866,07
Ofizial admin. 1. mailakoa	33,02	45,06	0,63	13.868,40	18.926,67	1.071,00	33.866,07
Antol. tek., 1. mailakoa	33,02	45,06	0,63	13.868,40	18.926,67	1.071,00	33.866,07
7 lanbide-taldea							
Antol. tek., 2. mailakoa	33,02	52,18	0,63	13.868,40	21.915,45	1.071,00	36.854,85
Antol. tek., 1. mailakoa	33,02	52,18	0,63	13.868,40	21.915,45	1.071,00	36.854,85
Administratiburua	36,69	48,51	0,63	15.409,80	20.374,05	1.071,00	36.854,85
8 lanbide-taldea							
Analista Programatz.	33,02	59,30	0,63	13.868,40	24.904,21	1.071,00	39.843,61
Delin. proiektugilea	36,69	55,63	0,63	15.409,80	23.362,81	1.071,00	39.843,61
9 lanbide-taldea							
Delin. proiektugilea	36,69	62,74	0,63	15.409,80	26.351,56	1.071,00	42.832,36
Administratiburua	36,69	62,74	0,63	15.409,80	26.351,56	1.071,00	42.832,36
Ingeniari teknikoa	42,78	56,65	0,63	17.967,60	23.793,76	1.071,00	42.832,36
Delineatzailea, 1. mailakoa	33,02	66,41	0,63	13.868,40	27.892,96	1.071,00	42.832,36

Sagola, S A

1. eranskina:

Soldata-taula

2019

Lanbide taldea

Lanbide taldea	Eguneko euro gordinak		Gord. o.	Zenbateko gordina urtean			
	Oin. sold.	Sold. os.	Sol. a. pl.	Oin. sold.	Sold. os.	Sol. a. pl.	Guztira
1 lanbide-taldea							
Peoia	26,28	14,28	0,63	11.169,00	6.069,31	1.071,00	18.309,31
Espezialista	26,89	13,67	0,63	11.428,25	5.810,06	1.071,00	18.309,31
2 lanbide-taldea							
Peoia	26,28	17,25	0,63	11.169,00	7.331,52	1.071,00	19.571,52
Espezialista	26,89	16,64	0,63	11.428,25	7.072,27	1.071,00	19.571,52
3 lanbide-taldea							
Espezialista	26,89	21,32	0,63	11.428,25	9.059,32	1.071,00	21.558,57
Ofiziala, 3. mailakoa	26,89	21,32	0,63	11.428,25	9.059,32	1.071,00	21.558,57
Ofiziala, 2. mailakoa	29,34	18,87	0,63	12.469,50	8.018,07	1.071,00	21.558,57
Ofiziala, 1. mailakoa	31,78	16,43	0,63	13.506,50	6.981,07	1.071,00	21.558,57
4 lanbide-taldea							
Espezialista	26,89	25,74	0,63	11.428,25	10.939,39	1.071,00	23.438,64
Ofiziala, 3. mailakoa	26,89	25,74	0,63	11.428,25	10.939,39	1.071,00	23.438,64
Ofiziala, 2. mailakoa	29,34	23,29	0,63	12.469,50	9.898,14	1.071,00	23.438,64
Ofiziala, 1. mailakoa	31,78	20,85	0,63	13.506,50	8.861,14	1.071,00	23.438,64
Gidaria	29,34	23,29	0,63	12.469,50	9.898,14	1.071,00	23.438,64
Taldeburua	31,78	20,85	0,63	13.506,50	8.861,14	1.071,00	23.438,64
Antol. tek., 2. mailakoa	33,02	20,24	0,63	13.868,40	8.499,24	1.071,00	23.438,64
Sukaldaria	29,34	23,92	0,63	12.322,80	10.044,84	1.071,00	23.438,64
5 lanbide-taldea							
Espezialista	26,89	32,78	0,63	11.428,25	13.932,18	1.071,00	26.431,43
Ofiziala, 3. mailakoa	26,89	32,78	0,63	11.428,25	13.932,18	1.071,00	26.431,43
Ofiziala, 2. mailakoa	29,34	30,33	0,63	12.469,50	12.890,93	1.071,00	26.431,43
Ofiziala, 1. mailakoa	31,78	27,89	0,63	13.506,50	11.853,93	1.071,00	26.431,43
Taldeburua	31,78	27,89	0,63	13.506,50	11.853,93	1.071,00	26.431,43
6 lanbide-taldea							
Ofiziala, 3. mailakoa	26,89	39,81	0,63	11.428,25	16.921,09	1.071,00	29.420,34
Ofiziala, 2. mailakoa	29,34	37,36	0,63	12.469,50	15.879,84	1.071,00	29.420,34
Ofiziala, 1. mailakoa	31,78	34,92	0,63	13.506,50	14.842,84	1.071,00	29.420,34
Taldeburua	31,78	34,92	0,63	13.506,50	14.842,84	1.071,00	29.420,34
Arduraduna	33,02	34,48	0,63	13.868,40	14.480,94	1.071,00	29.420,34
7 lanbide-taldea							
Arduraduna	33,02	41,59	0,63	13.868,40	17.469,85	1.071,00	32.409,25
8 lanbide-taldea							
Arduraduna	33,02	48,71	0,63	13.868,40	20.458,76	1.071,00	35.398,16
Ingeniari teknikoa	42,78	38,95	0,63	17.967,60	16.359,56	1.071,00	35.398,16
9 lanbide-taldea							
Ingeniari teknikoa	42,78	46,07	0,63	17.967,60	19.348,45	1.071,00	38.387,05

S a g o l a, SA

3. eranskina

2019

A parteko orduaren prezioa

Lanbide-taldea	Bulegoak	Lantegiak
1	13,75	12,75
2	16,06	14,24
3	18,34	15,73
4	20,63	17,21
5	22,95	19,52
6	25,25	21,82
7	27,55	24,14
8	29,85	26,43
9	32,14	28,73

Txandakotasun-prezioa, eguneko

5,01

Sagola, SA

4. eranskina

PIC Sistema

Pizgarrien likidaziorako taula

2019

Aurrezki portzentai	J arduera	Euro/ordu	Aurrezki portzentai	J arduera	Euro/ordu
1,9800	101	0,1230	47,7448	131	1,9785
3,9600	102	0,2460	48,8726	132	2,0197
5,9400	103	0,3690	50,0004	133	2,0609
7,9200	104	0,4920	51,1282	134	2,1021
9,9000	105	0,6150	52,2560	135	2,1433
11,8800	106	0,7380	55,1760	136	2,1845
13,8600	107	0,8610	58,0960	137	2,2257
15,8400	108	0,9840	61,0160	138	2,2669
17,8200	109	1,1070	63,9360	139	2,3081
19,8000	110	1,2300	66,8560	140	2,3493
21,7800	111	1,2546	69,7760	141	2,3905
23,7600	112	1,2792	72,6960	142	2,4317
25,7400	113	1,3038	75,6160	143	2,4729
27,7200	114	1,3284	78,5360	144	2,5141
29,7000	115	1,3530	81,4560	145	2,5553
30,8278	116	1,3776	84,3760	146	2,5965
31,9556	117	1,4022	87,2960	147	2,6377
33,0834	118	1,4268	90,2160	148	2,6789
34,2112	119	1,4514	93,1360	149	2,7201
35,3390	120	1,4760	96,0560	150	2,7613
36,4668	121	1,5006	98,9760	151	2,8025
37,5946	122	1,5252	101,8960	152	2,8437
38,7224	123	1,5498	104,8160	153	2,8849
39,8502	124	1,5744	107,7360	154	2,9261
40,9780	125	1,7313	110,6560	155	2,9673
42,1058	126	1,7725	113,5760	156	3,0085
43,2336	127	1,8137	116,4960	157	3,0497
44,3614	128	1,8549	119,4160	158	3,0909
45,4892	129	1,8961	122,3360	159	3,1321
46,6170	130	1,9373	125,2560	160	3,1733

Sagola, SA

2. eranskina

Soldata-taula

2020

Lanbide taldea

Bulegoak	Eguneko euro gordinak		Gord. o.	Zenbateko gordina urtean			
	Oin. sold.	Sold. os.	Sol. a. pl.	Oin. sold.	Sold. os.	Sol. a. pl.	Guztira
1 lanbide-taldea							
Laguntz. ad./teknikaria	29,78	13,36	0,64	12.507,60	5.610,50	1.088,00	19.206,10
2 lanbide-taldea							
Laguntz. ad./teknikaria	29,78	20,58	0,64	12.507,60	8.644,10	1.088,00	22.239,70
3 lanbide-taldea							
Laguntz. ad./teknikaria	29,78	27,80	0,64	12.507,60	11.677,69	1.088,00	25.273,29
Antol. tek., 2. mailakoa	33,52	24,06	0,64	14.078,40	10.106,89	1.088,00	25.273,29
Ofizial admin., 2. mailakoa	32,26	25,32	0,64	13.549,20	10.636,09	1.088,00	25.273,29
4 lanbide-taldea							
Laguntz. ad./teknikaria	29,42	35,39	0,64	12.356,40	14.862,48	1.088,00	28.306,88
Antol. tek., 2. mailakoa	33,12	31,69	0,64	13.910,40	13.308,48	1.088,00	28.306,88
Ofizial admin., 2. mailakoa	31,87	32,94	0,64	13.385,40	13.833,48	1.088,00	28.306,88
Delineatzailea, 2. mailakoa	29,78	35,03	0,64	12.507,60	14.711,28	1.088,00	28.306,88
Zuzend.-gidaria	29,78	35,03	0,64	12.507,60	14.711,28	1.088,00	28.306,88
5 lanbide-taldea							
Laguntz. ad./teknikaria	29,78	42,25	0,64	12.507,60	17.744,88	1.088,00	31.340,48
Antol. tek., 2. mailakoa	33,52	38,51	0,64	14.078,40	16.174,08	1.088,00	31.340,48
Antol. tek., 1. mailakoa	33,52	38,51	0,64	14.078,40	16.174,08	1.088,00	31.340,48
Ofizial admin., 2. mailakoa	32,26	39,77	0,64	13.549,20	16.703,28	1.088,00	31.340,48
6 lanbide-taldea							
Ofizial admin., 2. mailakoa	32,26	46,99	0,64	13.549,20	19.736,86	1.088,00	34.374,06
Ofizial admin. 1. mailakoa	33,52	45,73	0,64	14.078,40	19.207,66	1.088,00	34.374,06
Antol. tek., 1. mailakoa	33,52	45,73	0,64	14.078,40	19.207,66	1.088,00	34.374,06
7 lanbide-taldea							
Antol. tek., 2. mailakoa	33,52	52,96	0,64	14.078,40	22.241,27	1.088,00	37.407,67
Antol. tek., 1. mailakoa	33,52	52,96	0,64	14.078,40	22.241,27	1.088,00	37.407,67
Administratiburua	37,24	49,24	0,64	15.640,80	20.678,87	1.088,00	37.407,67
8 lanbide-taldea							
Analista Programatz.	33,52	60,18	0,64	14.078,40	25.274,86	1.088,00	40.441,26
Delin. proiektugilea	37,24	56,46	0,64	15.640,80	23.712,46	1.088,00	40.441,26
9 lanbide-taldea							
Delin. proiektugilea	37,24	63,68	0,64	15.640,80	26.746,05	1.088,00	43.474,85
Administratiburua	37,24	63,68	0,64	15.640,80	26.746,05	1.088,00	43.474,85
Ingeniari teknikoa	43,42	57,50	0,64	18.236,40	24.150,45	1.088,00	43.474,85
Delineatzailea, 1. mailakoa	33,52	67,40	0,64	14.078,40	28.308,45	1.088,00	43.474,85

Sagola, S A

1. eranskina:

Soldata-taula

2020

Lanbide taldea

Lanbide taldea	Eguneko euro gordinak		Gord. o.	Zenbateko gordina urtean			
	Oin. sold.	Sold. os.	Sol. a. pl.	Oin. sold.	Sold. os.	Sol. a. pl.	Guztira
1 lanbide-taldea							
Peoia	26,67	14,40	0,64	11.361,42	6.134,53	1.088,00	18.583,95
Espezialista	27,29	13,78	0,64	11.625,54	5.870,41	1.088,00	18.583,95
2 lanbide-taldea							
Peoia	26,67	17,41	0,64	11.361,42	7.415,67	1.088,00	19.865,09
Espezialista	27,29	16,79	0,64	11.625,54	7.151,55	1.088,00	19.865,09
3 lanbide-taldea							
Espezialista	27,29	21,52	0,64	11.625,54	9.168,41	1.088,00	21.881,95
Ofiziala, 3. mailakoa	27,29	21,52	0,64	11.625,54	9.168,41	1.088,00	21.881,95
Ofiziala, 2. mailakoa	29,78	19,03	0,64	12.686,28	8.107,67	1.088,00	21.881,95
Ofiziala, 1. mailakoa	32,26	16,55	0,64	13.742,76	7.051,19	1.088,00	21.881,95
4 lanbide-taldea							
Espezialista	27,29	26,00	0,64	11.625,54	11.076,68	1.088,00	23.790,22
Ofiziala, 3. mailakoa	27,29	26,00	0,64	11.625,54	11.076,68	1.088,00	23.790,22
Ofiziala, 2. mailakoa	29,78	23,51	0,64	12.686,28	10.015,94	1.088,00	23.790,22
Ofiziala, 1. mailakoa	32,26	21,03	0,64	13.742,76	8.959,46	1.088,00	23.790,22
Gidaria	29,78	23,51	0,64	12.686,28	10.015,94	1.088,00	23.790,22
Taldeburua	32,26	21,03	0,64	13.742,76	8.959,46	1.088,00	23.790,22
Antol. tek., 2. mailakoa	33,52	20,53	0,64	14.078,40	8.623,82	1.088,00	23.790,22
Sukaldaria	29,78	24,27	0,64	12.507,60	10.194,62	1.088,00	23.790,22
5 lanbide-taldea							
Espezialista	27,29	33,13	0,64	11.625,54	14.114,36	1.088,00	26.827,90
Ofiziala, 3. mailakoa	27,29	33,13	0,64	11.625,54	14.114,36	1.088,00	26.827,90
Ofiziala, 2. mailakoa	29,78	30,64	0,64	12.686,28	13.053,62	1.088,00	26.827,90
Ofiziala, 1. mailakoa	32,26	28,16	0,64	13.742,76	11.997,14	1.088,00	26.827,90
Taldeburua	32,26	28,16	0,64	13.742,76	11.997,14	1.088,00	26.827,90
6 lanbide-taldea							
Ofiziala, 3. mailakoa	27,29	40,25	0,64	11.625,54	17.148,11	1.088,00	29.861,65
Ofiziala, 2. mailakoa	29,78	37,76	0,64	12.686,28	16.087,37	1.088,00	29.861,65
Ofiziala, 1. mailakoa	32,26	35,28	0,64	13.742,76	15.030,89	1.088,00	29.861,65
Taldeburua	32,26	35,28	0,64	13.742,76	15.030,89	1.088,00	29.861,65
Arduraduna	33,52	34,99	0,64	14.078,40	14.695,25	1.088,00	29.861,65
7 lanbide-taldea							
Arduraduna	33,52	42,21	0,64	14.078,40	17.728,99	1.088,00	32.895,39
8 lanbide-taldea							
Arduraduna	33,52	49,44	0,64	14.078,40	20.762,73	1.088,00	35.929,13
Ingeniari teknikoa	43,42	39,54	0,64	18.236,40	16.604,73	1.088,00	35.929,13
9 lanbide-taldea							
Ingeniari teknikoa	43,42	46,76	0,64	18.236,40	19.638,46	1.088,00	38.962,86

S a g o l a, SA

3. eranskina

2020

A parteko orduaren prezioa

Lanbide-taldea	Bulegoak	Lantegiak
1	13,96	12,94
2	16,30	14,45
3	18,62	15,97
4	20,94	17,47
5	23,29	19,81
6	25,63	22,15
7	27,96	24,50
8	30,30	26,83
9	32,62	29,16

Txandakotasun-prezioa, eguneko

5,09

Sagola, SA

4. eranskina

PIC Sistema

Pizgarrien likidaziorako taula

2020

Aurrezki portzentai	J arduera	Euro/ordu	Aurrezki portzentai	J arduera	Euro/ordu
1,9800	101	0,1248	47,7448	131	2,0081
3,9600	102	0,2496	48,8726	132	2,0499
5,9400	103	0,3744	50,0004	133	2,0917
7,9200	104	0,4992	51,1282	134	2,1335
9,9000	105	0,6240	52,2560	135	2,1753
11,8800	106	0,7488	55,1760	136	2,2171
13,8600	107	0,8736	58,0960	137	2,2589
15,8400	108	0,9984	61,0160	138	2,3007
17,8200	109	1,1232	63,9360	139	2,3425
19,8000	110	1,2480	66,8560	140	2,3843
21,7800	111	1,2730	69,7760	141	2,4261
23,7600	112	1,2980	72,6960	142	2,4679
25,7400	113	1,3230	75,6160	143	2,5097
27,7200	114	1,3480	78,5360	144	2,5515
29,7000	115	1,3730	81,4560	145	2,5933
30,8278	116	1,3980	84,3760	146	2,6351
31,9556	117	1,4230	87,2960	147	2,6769
33,0834	118	1,4480	90,2160	148	2,7187
34,2112	119	1,4730	93,1360	149	2,7605
35,3390	120	1,4980	96,0560	150	2,8023
36,4668	121	1,5230	98,9760	151	2,8441
37,5946	122	1,5480	101,8960	152	2,8859
38,7224	123	1,5730	104,8160	153	2,9277
39,8502	124	1,5980	107,7360	154	2,9695
40,9780	125	1,7573	110,6560	155	3,0113
42,1058	126	1,7991	113,5760	156	3,0531
43,2336	127	1,8409	116,4960	157	3,0949
44,3614	128	1,8827	119,4160	158	3,1367
45,4892	129	1,9245	122,3360	159	3,1785
46,6170	130	1,9663	125,2560	160	3,2203